

# HERNANI kronika

2003 urtea  
Ekainak 16  
Astelehena  
Alea: 798  
[www.kronika.net](http://www.kronika.net)



San Joan iragarpentako kontzertuko parte hartzaleak oholtza gainean, kontzertu amaieran.

## ■ PELOTA

### Goiatz Manzisidor eta Amaia Martinezek ezin Lasa-Arozenaren kontra

ATZO jokatu ziren kiroldiaren Hernaniako Pelota Txapelketako finalaurrekoetako partiduak. Hernaniarrek ezin izan zioten eutsi Lasa eta Arozenari eta 30-17 galdu zuten. Hernaniarrek ez zuten beren egunik onena izan eta finalistik kanpora beharko dute Txapelketaren lehenengo edizioan. Beste finalaurrekoan, Urkizu-Ruizek 30 eta 28 irabazi zioten Etxegia-Mendizabali. Partidu doptoreta eta borrokatua izan zen bigarren hau. Finala eta 3-4 postuak datorren igandean jokatuko dira, kiroldikoko frontoian, goizeko 11:00etan. □

### Musika Eskolako ikasleen Kontzertuak Sandiusterrin


HERNANI Musika Eskolak urte bukaerako kontzertuak antolatu ditu eta joan den osteguna ezkerro ari dira ikasleak beren trebeziak erakusten. Gaur, abesbatza eta gitarra kontzertua dago eta bihar astearte, biolina, biolontxeloa eta pianoa. 19:00etan Sandiusterrin. Kontzertuak aste osoan dira. □

### Dobera Euskara Elkarteak argazki zahar erakusketa jarri du Laramendin

DOBERA Euskara Elkarteak argazki zahar erakusketa jarria du Laramendi 11n, bulego berriaren ondoan. Orain 2 urte ikerketa beka ateratzen zuen Doberak eta horren bueltan antolatu du argazki erakusketa. Erakusketa dauden zenbait argazki liburuan argitaratuko direnak dira eta liburuko zenbait pasarte ere badaude irakurtzeko. Erakusketa hau, hala ere, urrian Biterin jartzekoaren denaren parte bat da. Erakusketa Laramendin jartzearren arrazoia da bazkide eta herritarrei lokal berria eta Doberaren egitasmoa erakustea. □



Ezkerrean, Sarriegitarren 3 generazio dantzan eta eskubian, Gudarien plaza jendez gainezka.



**HERNANI  
HIZKUNTZAK**  
Gure Ingelesetxea  
**ZORIONAK Edurne**  
("Cambridge First" gainditzeagatik ("Merit" atera duen beste bat)  
UDAKO IKASTARO  
ERDI-TRINKOAK HERNANIN,  
IRAKASLE NATIBOEKIN  
AURREMatrikula ZABALIK  
(2003-04 ikasturtekoa ere bai)  
Deitu Alan / Joe  
☎ 943 33 11 08  
KALE NAGUSIA 41, 1

mikel armendariz  
proiektu eta instalazio  
elektrikoak  
Tel. 649 846 422  
HERNANI

BERTAKO FRUTA ETA BARAZKIAK  
**Ezkerro**  
Fruituak  
Bertako produktuak  
Fruitu exotikoak  
Telefonoz eskatzeko:  
943 33 32 75  
Orain helbide berrian gaituzu:  
Antziola 5


## GARAYAR AUTOBUSAK

Zerbitzu diskrezzionalak  
(ESKOLARRAK)



Autobus serbitzua  
Linea erregularrak

Hernani-Aiete-Donostia-Aiete-Hernani  
Andoain-Urnieta-Hernani-Donostia-Hernani-Urnieta-Andoain  
Jauregi bailara 17 - Tel.: 943 556 658 / 943 556 662  
Faxa: 943 331 208 e-maila: [mgarayar@facilnet.es](mailto:mgarayar@facilnet.es)  
20120 Hernani (Gipuzkoa)



Sagardo probaketa ezkerrean eta herri kirolok eskubian. Bietan jende asko zen atzo plazan.

## Bukatu dira San Antonioak Ereñotzun lau eguneko festaren ondoren

■ Ostegunetik igandera arteko festa etenik gabea izan da, egitarau ‘potoloa’ izan baitute festek aurten ere ■ Jenderik gehientsuena atzo ibili zen.

BUKATU dira San Antonioak Ereñotzun, ostegunetik igandera arteko festaren ondoren. Urterotsuko moduan ospatu dituzte auzoko festak aurten ere eta jendeak, batzuetan gehixeago bestetan gutxieago, baina, ondo erantzun du.

### Arraun desafioa

Auzoan saltsa dezentea sortu duena trainerila desafioa izan da aurten. Auzoko sei gazte eta patroia Hernaniko zazikotearen kontra neurtu di-

tuzte indarrak. Estropada, Latxe eta Latxeko presa artean jokatu zuten. Abiera batera, baina, alde banatara egin zuten bi trainerilek, eta zeinek nora hasi behar zuten erabakitzeko esprinean jokatu zuten. Juxtu baina ereñotzurak irabazi zuten esprineko proba eta baita estropada ere. Bukaeran, errebatxu jokatu zuten, berriz ere esprinean eta abordaje eta guztikoa izan zen bigarren aldi hau, estropada importanteenetan bezalaxe. □



Arraun apustuan, hernaniarrak onuzkaldetik eta ereñotzuarrak bazterretik.

## Manuel Rodriguez de Mendarozketa Andragoton

MANUEL Rodriguez de Mendarozketa 91 urteko donostiarra hitzaldia emango du datorren ostegunean Andragoto ateneoan. Rodriguez de Mendarozketa bere bizitzari buruz, anarkismoari buruz eta beste hainbat gairi buruz ariko da, arratsaldeko 20:00etatik aurrera. Rodriguez de Mendarozketa ekartzeko ahalegina egin zuen lehen ere Hernaniko talde batetik, baina, orduan gaixorik jarri zen eta ezin izan zuen etorri. □

## Akzioak ‘Berria’ egunkarirako

EGUNKARIA itxi zutenetik Hernanin batzordea lanean ari da lagundu eta dirua ateatzeko. Hernaniko Egunkariaren Aldeko Batzordeak jakitera eman duenez, Berria egunkarirako akzioak saltzen ari dira. Hernanin, helburua da 46.000 euroren akzioak saltzea eta dagoeneko % 25 saltzea lortu du batzordeak, 300 euroko akzioak banatuaz, talde eta banakoei. Akzioak erosi nahi dituenak tokian tokiko batzordeetara jo edo deitu 652 712072 edo 943 592905 telefonoetara. □

## HITZ BITAN



Imanol Beroiz eta Mertxe Gastesi akordioa sinatzen.

### ✓ ONGINTZA PATRONATUA

**Baldintza berriak hitzartu dituzte.** Ongintza Patronatuak jasan dituen aldaketen ostein eta Diputaziorako proposamenera egokitzen, zenbait aldaketa gertatu dira langileen baldintzetan. Joan den apirila ezkero ari dira lan baldintza berriean lanean Zaharren Egoitzako langileak eta orain paper gainean jarri nahi izan dituzte baldintza horiek. Imanol Beroiz Ongintzako buruak eta Mertxe Gastesi langileen ordezkariek sinatu zuten hitzarmena joan den ostiralean. Puntu bat baino gehiago biltzen ditu akordioak, baina, Gastesiren hitzetan garrantzitsuena da orain langile guztiek kategoria eta egutegi bera daukatela.

### ✓ ATLETA OSOA

**Ekainaren 21ean da.** Atleta osoaren proba ekainaren 21ean egingo da, goizeko 10:00etan, Urbieta kaletik irtenda. Antolatzailea Etxeberriko Lagun Artea elkartea da eta izen ematea bertan egin behar da, 19:00etatik 21:00etara. Telefonoa 943 552718. Izen ematea debalde da eta sariak eta luntxa egongo dira parte hartzaleentzat.

### ✓ PALANKARIAK

**Palankari proba ekainaren 21ean.** Palankarien 22garren Etxeberriko saria eta Euskal herriko txapelketa ekainaren 21ean egingo da Sagastialdeko atletismo pistan. Izen ematea Etxeberriko Lagun artea Elkartean egin behar da. Telefonoa 943 552718. Izen ematea debalde da eta sariak eta luntxa egongo dira parte hartzaleentzat.

### ✓ JAI BATZORDEA

**Bilera gaur.** Jai Batzordeak bilera du gaur, 19:30etan, Biterin, San Joantako hasiera eta amaierako ekitaldiak antolatzeko.

### ✓ MOLOTOFF IRRATIA (99.2)

**AEK-ko kideei elkarrizketa gaur.** Molotoff irratiak AEK-ko kide bat elkarrizketa egingo dio gaur, Udararako dauzkaten ikastaro bereziengatik eskaintza azaltzeko. Goizeko 11:30etatik aurrera. □

### ✍ JASOTA BEZALA

Bi urte terdi ondoren, Sagastialde-Berriko auzoak exijitzen dugu, VISESA Empresak, auzoan babes ofizialeko etxeak egin zituenak, urbanizazioa konpontzeko eta normalizatzeko. Guztio honek, Hernaniko Udaletxeak urbanizazioa ez onartzea dakar eta ondorioz

gu eta auzoa zerbitzu gabe geratzea, nahiz eta hernaniar guztiek bezalaxe zergak ordaindu.

PD.- Nola mantendu dezake VISESA Empresak AENOR kalitate ziurtagiria horrelako gauzak egin ondoren ?

Patxi Soto Torre

### IRAGARKI MERKEAK

Garaje itxia salgai daukagu, Txantxilla onduan. Deitu: 626 86 92 79

### ZERBITZUAK

#### ☎ TELEFONOAK

► Taxiak:

943 550093

► Udalzaingoa:

943 333288

► DYK:

943 464622

► Anbulatorioa:

943 006666

► Jokalarri anonimoak:

943 331103

#### + FARMAZIAK

#### ASTELEHENIA

► Egunez: Etxebeste

Elkano 2

943 552087

#### ASTEARTEA

► Egunez: Bilbao-Sag.

Urbia 7

943 552941

► Gauez: De Miguel

Lasarte. Nagusia 32

943 361556